


ORIOKO HERRI IKASTOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA



ORIOKO HERRI IKASTOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA





AURKIBIDEA

0. SARRERA. AURKEZPENA.....	6
1. IKASTETXEAREN TIPOLOGIA.....	8
2. NORTASUN-EZAUGARRIAK.....	9
3. IKASTETXEAREN HELBURUAK.....	14



0. SARRERA. AURKEZPENA.

aurkezpena

Esku artean daukazun dokumentua [Orioko Herri Ikastolaren Hezkuntza Proiektua](#) da. Gure Heziketa Komunitatea osatzen duten alderdi guztiak biltzeko eta koherentzia handiagoa emateko baliabidea izatea du helburu.

Oso ongi bereizitako [hiru atal](#) aurkituko dituzu Hezkuntza Proiektuan.

- [Lehenik](#), ikastetxearen tipologiaren berri ematen du, eta, erabat zehatza ez bada ere, Ikastola bere ingurunean kokatzeko aski dela uste dugu.
- [Ondoren](#), nortasun-ezaugarriak edo gure ikastetxearen oinarriak ageri dira; bestela esanda, garen hori.
- [Azkenik](#), heburuez, gure ikastetxeak Komunitate Hezitzaile bezala lortu nahi duen joeraz hitz egiten du.

Txosten hau ez da asmatutako ezer, ez da berria, baizik eta Ikastolak bere eguneroko lanean erabiltzen dituen beste txosten batzuetan oinarrituta dagoen dokumentua, hala nola, ikastetxearen urteko egitasmoetan, sorrera-estatutuetan, barne-erregimenerako araudian, Artezkaritza Kontseilu, Batzar, irakasle, zuzendaritza eta abarrek hartutako akordioetan. Beraz, Hezkuntza Proiektua izeneko txosten honetan, egun garena, egiten ari garena eta egiteko asmoa duguna bildu eta egituratu nahi izan dugu.

Orain zuk irakurtzea nahi dugu, Orioko Herri Ikastolak osatzen duen Heziketa Komunitatea gehiago ezagutu dezazun, zuk –guraso, irakasle, langile edo ikasle zaren horrek– ere osatzen duzulako.

Besterik gabe, irakurketa interesgarria izango zaizulakoan, agurtzen zaitugu.

Orion, 2011ko abenduan

1. IKASTETXEAREN TIPOLOGIA

Atal honetan, ikastetxea deskribatzen dugu, bere tipologia ezagutu ahal izateko.

■ 1.1. TITULARITATEA

Kooperatiba-elkartea da ikastetxea, guraso-kooperatiba hain zuzen ere. Ikastolako estatutu sozialek eta Euskadiko nahiz Europako Kooperatiba Legeak eragin diezaioketen legezko aginduen arabera arautzen da. Ikastetxearen izena **ORIOKO HERRI IKASTOLA, KOOPERATIBA ELKARTEA** da 2000. urteaz geroztik.

■ 1.2. FINANTZAKETA-EREDUAK

Ikastetxearen finantzaketa-portzentajerik handiena (% 80) Hezkuntza Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Udalaren laguntzen eskutik dator. Gainerakoa (% 20), gurasoek –kuoten bidez– ordaintzen dute.

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Orio subvencionan la mayor parte de financiación (80%) que necesita la Ikastola. El resto (20%) se financia mediante las cuotas que pagan los padres y las madres.

■ 1.3. KOKAPEN GEOGRAFIKOA

Ikastolak bi eraikin ditu: bat Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, eta bestea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat. Biak herriaren erdi-erdian daude. Kiroldegia, kirol eremuak eta osasun-zentroa gertu dituzte.

- Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako eraikinaren hegaldetik, Oria ibaia pasatzen da; ikastolarako sarrera iparraldean dago, eta ekialdean plaza eder bat du.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako eraikinaren mendebaldetik, Oria ibaia pasatzen da eta kirol-eremu handia dago eraikina eta ibaiaren artean; ikastolarako sarrera iparmendebaldean dago, eta iparrekialdean plaza eder bat du.



2. NORTASUN-EZAUGARRIAK



■ 2.1. SORRERA

Herriak sortua da Orioko Herri Ikastola, beste asko bezala, 1970eko hamarkadan Euskal Herrian zegoen bestelako hezkuntza-eredu baten premia asetzeko. Hezkuntza-eredu haren ardatzak hauek dira: euskara, euskal nortasuna eta kultura ezagutu eta sustatzea, eta kalitate oneko Euskal Eskola bultzatzea.

Orioko Herri Ikastola, como otras muchas ikastolas, fue construida gracias al trabajo de la ciudadanía en la década de los 70, para satisfacer las necesidades de un modelo educativo euskaldun y de calidad.

■ 2.2. HELBURUA

Orioko Herri Ikastolaren helburua da haurraren eta nerabearen giza garapen osoa. Horretarako, lankidetza estua dago guraso eta irakasleen artean, betiere, euskara eta Euskal Herriko kulturen oinarrituta.

■ 2.3. HIZKUNTZAK

Kontuan izanik herri baten kulturaren sustraia hizkuntza dela, Orioko Herri Ikastolak bermatzen du ikasketak bukatzen dituztenean ikasle guztiak euskaraz jarraitzeko gai izango direla.

Gainera, gaztelaniaren ezagutza eta erabilera egokia ere bermatzen du, 6 urtetik hasita, Hego Euskal Herriko egoera elebiduna aintzat hartuta.

Hirugarren hizkuntza baten (*ingelese*) irakaskuntza egokia ere bultzatuko du, beste herri batzuekin harremanak lortzeko tresnatzat. Atzerriko hizkuntza horren irakaskuntza 4 urterekin hasiko da. DBHn, berriaz, frantsesa ikas dezakete hala nahi duten ikasleek.

EUSKARA - CASTELLANO - INGLES - FRANCES

■ 2.4. IDEOLOGIA-ANIZTASUNA

→ 2.4.1. Aukera apolitikoa

Apolitikotzat aitortzen du bere burua Ikastolak, eta Euskal Herriko aniztasun politikoaren aldeko. Hortaz, talde edo alderdi politikoetatik at dago, errespetatzen baditu ere heziketa-alorretik kanpora ikastolako kideek (*gizabanako gisara*) dituzten ideologiak. Eskola-orduetan, ordea, ez da inolako ekintza politikorik ez propagandarik egin behar ikastetxean.

La Ikastola se considera apolítica y partidaria de la pluralidad política que existe en el País Vasco.

→ 2.4.2. Aukera ez-konfesionala

Era berean, erlijio-gaietan euskal herritarren artean dagoen aniztasuna kontuan izanik, Orioko Herri Ikastola akonfesionala da. Begirunez tratatzen ditugu erlijio-sinesmen eta sentimendu guztiak, betiere haien adierazpideak eta moduak oinarritzko giza eskubideen aurkakoak ez badira.

Orioko Herri Ikastola es aconfesional. Trata con respeto todas las creencias y sentimientos religiosos, siempre que los modelos de expresión y representación no atenten contra los derechos humanos básicos.

→ 2.4.3. Balio etikoak

Balio etikoak sustatzeko konpromisoa du ikastolak, hala nola pertsonaren duintasuna, giza eskubideak, gizaki guztien berdintasuna, justiziaren aldeko jarrera (*pertsonala zein kolektiboa*), askatasuna, parte-hartze eta ekinbide demokratikoa, elkarrenganako errespetua, gizadiaren batasuna, indarkeria baztertzea, ingurumenarekiko errespetua... Giza Eskubide Unibertsalen Deklarazioak dioenarekin bat eginik betiere.



■ 2.5. DOAKOTASUNA LORTZEKO AHALEGINA

Heziketa doakoa izan dadin, egin beharreko ahalegin guztiak egingo dira, betiere helburu nagusia kalitatezko hezkuntza dela ahaztu gabe. Ahalik eta heziketa onena lortzearren, prest egongo da ikastola ahalegin guztiak egiteko, baita ekonomikoak ere, baina seme-alabak gure ikastolan hezi nahi duen inor ez da kanpoan geratuko diru-arazoak direla eta. Horrelakorik gerta ez dadin, behar diren neurriak jarriko dira martxan.

Se realizarán todos los esfuerzos necesarios para que la educación sea gratuita, pero sin olvidar que el principal objetivo es garantizar una educación de calidad.

■ 2.6. GIZARTERATZEA

Gizarteratzeko arazo fisikoak edo psikologikoak dituzten ikasleak integratzeko eginahala egingo du ikastolak, eta bere bitarteko guztiak erabiliko ditu ahalegin horretan.

La Ikastola realizará todo el esfuerzo posible y dispondrá todos los medios a su alcance para garantizar la integración de personas con dificultades físicas o psicológicas.

■ 2.7. HEZIKETA INTEGRALA

Ikastolak bere egiten du hezkidetzaren, komunitate bereko pertsonen arteko harremanetarako era naturala hori delako. Hezkidetzaren oinarritzko helburua heziketa osoa da, aniztasunean oinarritua eta hezkuntza-komunitateari eta gizarteari aukera ematen diena desberdintasunak dakarren aberastasunaz gozatzeko. Egoeraren arabera, justizia eta berdintasuna bermatzeko neurri bereziak hartuko dira.

El objetivo principal de la coeducación es garantizar una educación completa, basándose en la pluralidad y posibilitando que la sociedad y la comunidad disfruten de la riqueza que supone esa pluralidad.

■ 2.8. HEZKIDETZA

Ikastolan berdintasunean hezteko prozesuari deitzen diogu hezkidetzaren, sexu-arrazoiengatik inolako diskriminaziorik gabe, neskek eta mutilak beren eboluzio-prozesuan heziketa-aukera berdinak izateari alegia. Hezkidetzaren oinarritzko helburua da pertsonen garapen integralerako bidea, aniztasunak, banakotasunak eta desberdintasunak ematen diguten aberastasunetik abiatuta.

■ 2.9. METODOLOGIA



Gure hezkuntza-jarduera Ikastola guztiek onartutako Euskal Curriculumean oinarritzen da. Bertan, ikasle bakoitzaren premiei erantzun egokia ematen saiatzen da, norbanakoari zuzendutako jardueren bidez eta aniztasunari arreta eskainiz, bakoitzaren gaitasunei dagozkien aukera egokiak bilatuz. Gure metodologia ikasleen zuzeneko parte-hartzean oinarritzen da batik bat, hau da, ikasleak izan behar du protagonista esperimentazioan –batez ere lehenengo mailetan–, aurkikuntzan eta, ondoren, irakaspen-ikaspen prozesuan.

Nuestra actividad educativa se basa en el Curriculum Vasco, aceptado por todas las Ikastolas.

Ikasleak ebaluatzeko, kontuan izaten ditugu bai ikasleak lortutako emaitzak, bai erabilitako ikasketa-prozesua. Beraz, ebaluazioak jarraitua eta pedagogikoa izan behar du.

Curriculum (zer lantzen den, nola, non eta zertarako) eskola barruko nahiz eskolaz kanpoko ikaslearen ingurunera egokitzen ahalegintzen gara. Horretarako, etengabe berrikusten dira curriculum eta metodologia.

Nuestra metodología se basa en la participación directa del alumnado, es decir, los alumnos y las alumnas tienen que ser los protagonistas de la experimentación –sobre todo en los primeros cursos–, el descubrimiento, y posteriormente, de los procesos de aprendizaje.

Oinarrizko konpetentziak lortzen laguntzea da gure helburua, bizitza ondo prestatuta hasteko eta ibilbide luze eta aldakor honetan ahalik eta aukera handienak izateko, beti ere, Ikasleen bilakaera-aroak jarraituz, Hala, bizitzaz gozatzeko eta dagozkien ardurak bereganatzeko prestatzen ditugu, baita gizarte eta kultura zehatz honetan dituzten ardurak onartzeko ere.

■ 2.10. KUDEAKETA-EREDUA

Orioko Herri Ikastolaren kudeaketa-eredua partaidetzakoa da. Kudeaketa horren eraginkortasuna gu-raso, irakasle, langile ez-irakasle eta ikasleek bermatzen dute.


Gobernu-organo gorenari Batzar Nagusia da. Bazkide erabiltzaile *gurasoak*) eta bazkide laguntzaileek (*irakasle, pertsonal ez-irakasle eta ikastolaren helburuekin bat datorren edonor*) parte hartzen dute organo horretan, baita –aldizka– ikasleek ere.

Orioko Herri Ikastolaren kudeaketa-eredua partaide-tzakoa da. Kudeaketa horren eraginkortasuna guraso, irakasle, langile ez-irakasle eta ikasleek bermatzen dute.

El modelo de gestión de Orioko Herri Ikastola se basa en la participación de los padres y las madres, del profesorado, de los trabajadores y las trabajadoras no docentes, y del alumnado, que son los garantes de una gestión eficaz.

■ 2.11. PROIEKTU OSO BATEKO PARTAIDE

Orioko Herri Ikastolak bere nortasunari eusten dion arren, kolektibo batean ere parte hartzen du, Euskal Herriko beste ikastolekin batera, Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatibako partaide baita. Orioko Herri Ikastolak bere nortasunari eusten dion arren, kolektibo batean ere parte hartzen du, Euskal Herriko beste ikastolekin batera, Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatibako partaide baita.



3. IKASTETXEAREN EGITEKOA, XEDEAK ETA HELBURUAK

■ 3.1. EGITEKOA

Haur eta nerabeei bere giza garapen integrala ematea, guraso eta irakasleen arteko harreman estuan eta Euskal Herriaren kulturaren oinarrituta.

■ 3.2. XEDEAK

Euskal kulturaren sakonki errotutako hezkuntza-oinarri tinkoa eta zabala ematea gure ikasleei, kulturaren unibertsaltasunerako ateak irekitzeko asmoz.

Ikastolara datozen ikasle guztiak, euskaraz hitz egiteko gai direnak eta ez direnak, derrigorrezko oinarritzko heziketa amaitutakoan euskaldunak izan daitezten lortzea, eta datozen urteetan maila ertaineko edo goi-mailako ikasketak euskaraz eta gaztelaniaz egiteko gai izango direla bermatzea. Era berean, ingeles-maila ona bermatuko da. Gaztelaniaz edota ingelesez egiteko gai izango direla bermatzea da xedeetako bat.

Euskal kultura bizirik dagoela helaraztea gure ikasleei, baita euskal kultura aberasteko eta garatzeko erantzukizuna eta ardura ere, gizakien eta herrien arteko batasun-tresna izan dadin. Gure ikasle guztiak banan-banan bideratzea giza-, eskola- nahiz profesional-alorretan.

Conseguir que todos los alumnos y alumnas que vienen a la Ikastola -tanto los y las que saben euskera como los y las que no lo conocen- sean euskaldunes cuando finalicen la educación básica obligatoria, y garantizar que en los años posteriores sean capaces de realizar en euskera los estudios superiores o de nivel medio. Al mismo tiempo, se garantizará un buen nivel del inglés.

Euskal Curriculumaren proposamenaren arabera, gure ikaslearen gaitasunak mailarik handienez garratzen lortzea, giza izaeraren hiru eremutan:

- ➔ Gizabanako gisa (*egoera pertsonala*)
- ➔ Gizarteko kide edo partaide gisa (*egoera soziala*)
- ➔ Naturako partaide gisa (*egoera naturala*)



Según lo establecido en el Curriculum Vasco, conseguir el desarrollo de las capacidades de nuestros alumnos y alumnas en el mayor nivel posible, dentro de los tres ámbitos de la naturaleza del ser humano:

- *Como individuo (estado personal)*
- *Como miembro o parte de la sociedad (estado social)*
- *Como miembro o parte de la naturaleza (estado natural)*

■ 3.3. HELBURUAK

→ 3.3.1. Eskola euskalduna

- Ikastolako kideak arlo eta maila guztietan euskara bizkortzeko eta erregistro guztietan euskaraz bizitzeko prestatzea.
- Euskararen potentzialtasuna ahalik eta maila garaienera garatzeko eta eguneratzeko gaitasuna ematea hurrei.
- Hizkuntza normalizatu bati dagozkion eremu eta maila guztietan euskara jakin eta erabiliko duten kideak prestatzea.
- Ama-hizkuntza euskara ez duten hurrek euskara menderatu eta erabil dezaten lortzea.
- Euskararen erabilera normalizatuaren bultzatzaile izatea.
- Norberaren eta besteen hizkuntz ekoizpenak aztertzen eta horiei buruz hausnartzen irakastea, ulermena eta adierazpena hobetzeko.

Formar a personas que conozcan y utilicen el euskera en todos los ámbitos y niveles que corresponden a un idioma normalizado.

Conseguir que los niños y niñas cuya lengua materna no es el euskera, dominen y utilicen el idioma.

➔ 3.3.2. Herrikoia

- Herriaren kultur ondarea ezagutu eta baloratuko duten neska-mutilak hezteak.
- Herriak naturarekin aspaldidanik izan dituen harremanak ezagutu eta etorkizunean naturarekiko harremanak aurreikusteko gaitasuna lortzea.
- Gure herriak gizartea antolatzeke iraganean izan dituen moduak eta antolatu dituen erakundeak ezagutzea, eta horiei buruzko hausnarketa eta balorazioa egiteke gaitasuna izatea.
- Orioko historia Euskal Herrikoan kokatzen jakitea; Orio eta Euskal Herriko historiaren aldaketa eta gertakizun nagusiak ezagutzea.
- Tradizioak ematen duen ikuspegitik, gure herriaren etorkizuneko antolamendua zein izan daitekeen aurreikusteko gaitasuna eskuratzea.
- Hausnarketa egitea gure herriak unibertsoaren sorrera eta bilakaerari edo giza existentziaren zentzuari buruzko galderei eman dizkien erantzunez, eta horiek balioesten ikastea.
- Tradizioaren ikuspegi hori kontuan edukirik, balio eta sinesteen mundua ezagutu, balioetsi eta bizitzeko gaitasuna eskuratzea.
- Aurrekoengandik jaso dugun kultur ondare hori garatzen eta hedatzen ikastea.
- Gure herriko kultur ekintzetan parte hartzera bultzatzea haurrak.

Formar jóvenes que conozcan y valoren el patrimonio cultural de nuestro pueblo.

Teniendo en cuenta el enfoque de la tradición, conocer el mundo de los valores y creencias y conseguir la capacidad para valorarlo y vivirlo.

Aprender a desarrollar y difundir el patrimonio cultural recibido de nuestros antepasados.

Impulsar la participación del alumnado en las actividades culturales del municipio.

Organizar y fomentar diferentes actividades culturales en el municipio.

Encaminar el proceso de desarrollo del niño o niña dentro y desde la Cultura Vasca.

- Herriko kultur ekintzak antolatu eta bultzatzea.
- Haurren garapen prozesua Euskal Kulturaren baitan eta baitatik bideratzea.

→ 3.3.3. Askotarikoa

- Ikuspegi, jarrera, irizpide eta jokabide desberdinak aberastasun-iturritzat hartzen eta errespetatzen ikasiko dute Hezkuntza Komunitateko kideek.
- Ikuspegi, jarrera, irizpide eta jokabide desberdinak garatzeko autonomia- eta askatasun-giroa landuko da ikastolan.
- Autonomia- eta askatasun-giro horretan aukerak egitera bultzatuko dira hezkuntza-komunitateko kideak.
- Hezkuntza-komunitateko kideen arteko begirunea zainduko da, hurrek ere begirunez jarduten ikas dezaten.
- Askatasunean bizitzen eta besteen askatasuna errespetatzen ikasiko dute ikastolako kideek.

Los miembros de la Ikastola aprenderán a vivir en libertad y a respetar la libertad de los demás.



→ 3.3.4. Unibertsala

- Beste herrialdeetako kultura eta hizkuntzekiko interesa sortzea ikasle guztiengan.


Hacer que todos los alumnos y alumnas se interesen por el conocimiento de culturas e idiomas de otros países.

- Inguru hurbileko herrialdeetako kultura ezagutzea.
- Hizkuntza hedatuenak ezagutzea.
- Gure hizkuntza eta kultura beste herrialdeetako jendeari ezagutaraztea.

→ 3.3.5. Integrala

→ 3.3.5.1. Adimena garatzea:

- Norberaren burua eta ingurua ezagutzeko informazio berriak eskuratzeko zaletasuna eta ohitura bultzatzea ikasleengan.
- Esperientziatik eta praktikatik lortutako ezagutza sistematizatu eta maila zientifikora altxatzeko tresnak eta gaitasuna ematea ikasleari.
- Ikuspegi eta jarrera subjektiboa izatetik ikuspegi eta jarrera objektiboagoa izatera eramango duten behaketak eta ikerketak egitera bultzatzea hezkuntza-komunitateko kideak.



- Saillkapenak, indukzioak, dedukzioak, analisiak, sintesiak... egiteko gaitasuna lortzea.
- Gero eta konplexuagoak diren prozesuak ulertzeko gaitasuna eskuratzea.
- Sentimenen eta mugimenduaren adimen-mailatik adimen abstraktuko mailaraino haurrek egin behar duten aurrerabide guztia gidatu, erraztu eta horretan laguntzea.
- Pentsatzeko gaitasuna sustatzea ikasleengan.
- Arazoak ebazteko eman behar diren urratsak ezagutzen eta erabil daitezkeen estrategien jabe egiten laguntzea ikasleei.
- Ikasteko tekniken eta lan egiteko ohituren jabe izan daitezen lortzea.

➔ 3.3.5.2. Alderdi afektiboa garatzea:

- Ikaslearen nortasuna osatzen laguntzea, bere autoestimua hobetzeko metodoak erabiltzeko ohiturak hartu eta haren nortasuna definitzeko baliabideak eskuratzea.
- Familian, lagun artean nahiz eskolan gerta daitezkeen gatazka afektiboei aurre egiteko gaitasuna ematea.
- Maitasuna eta gorrotoa, berekoikeria eta altruismoa, laguntasuna eta etsaitasuna zer diren, nondik sortzen diren, nola elikatzen diren eta zertara garamatzaten ikasleak ikus dezan ahalegintzea.
- Jarrera eta jokabide altruistak sustatzea hezkuntza-komunitateko kideengan.
- Norberaren gaitasunez eta mugez jabearazten saiatzea, gaitasunak garatzen eta mugak gainditzen nahiz onartzen irakatsiz.

➔ 3.3.5.3. Alderdi psikomotorra:

- Osasun eta oreka psikofisiko egokia izateko beharrezko den prestakuntza psikomotorra ematea ikasleari.
- Gorputza behar bezala garatzeko egokiak diren ariketa fisikoak egitera bultzatzea.
- Oinarrizko higie- eta garbitasun-arauak ezagutarazi eta arau horiek betetzeko ohitura sortzea ikasleari.

➔ 3.3.5.4. Balio eta sinesteen alderdia:

- Begirunean, elkarrizketan, lankidetzan, gogoetan eta irekitasunean oinarritutako balioen arabera joka dezan saiatzea.
- Inguruak eta tradizioak eman diona aztertuz, besteen aukerekiko begirunea erakutsiz, bere irizpideak lantzerantz eta bere aukerak egitera bultzatzea ikaslea.

➔ 3.3.6. Demokratikoa:

- Kide guztien esku-hartze aktiboa ziurtatzeko antolamendua eratzea Ikastolan.
- Kide guztien esku-hartze aktiboa lortzeko bideak jartzea, bai kudeaketan, bai funtzionamenduan. Esku-hartze aktiboa eskatuko zaie kideei, bai planifikazioan, bai proiektuen gauzatze-fasean.
- Gizarte demokratiko batek izan behar dituen balioak bultzatzea: elkartasuna, besteenganako begirunea, elkarrizketarako irekitasuna...
- Demokratikoki landu eta onartutako barne-erregimeneko araudiaren arabera jardun behar dute komunitateko kideek. Behar izanez gero, araudi hori aldatzeko pausoak eman behar dituzte, bide demokratikotik betiere.

Disponer de medios que posibiliten la participación activa de todos los miembros, tanto en la gestión y el funcionamiento como en las fases de planificación y realización de proyectos.

➔ 3.3.7. Berdintasunaren aldekoa

- Gizarteko sexu-diskriminazioak gainditzeko gaitasuna lortzea ikasleek.





Garantizar una educación de calidad de todos los alumnos y alumnas, estableciendo medios para equilibrar las posibles desigualdades socioculturales o económicas.

Garantizar una educación de calidad de todos los alumnos y alumnas, estableciendo medios para equilibrar las posibles desigualdades de capacidades físicas o psíquicas.

- Kalitatezko hezkuntza ziurtatzea ikasle guztiei, maila soziokulturalean edo ekonomikoan egon daitezkeen diferentziak konpentsatzeko bideak jarritz.
- Kalitatezko hezkuntza ziurtatzea ikasle guztiei, gaitasun fisiko nahiz psikikoak direla-eta haurren artean dauden diferentziak konpentsatzeko bideak jarritz.
- Sexuen arteko diskriminaziorik egingo ez duen hezkuntza eskaintzea.
- Hezkuntza eta irakaskuntzaren helburu eta metodoak talde edo kide bakoitzaren egoera eta errit-mora egokitzen saiatzea.

→ 3.3.8. Elkartasunaren aldekoa:

- Herriko erakunde kulturekin elkartasunezko harremanak edukitzeko giro egokia sortzen ahale-gintzea.
- Hezkuntza-komunitateko kide guztiak herritarren artean adiskidantzazko harremanak sustatzen saiatzea.
- Herri ekimenetik sortzen diren mugimenduetan elkarrekin parte hartzen erakutsiz, elkartasun-loka-riak estutzeko bideak jartzea.
- Herrian sortzen diren mugimendu herritar, kultural eta artistikoak indartu eta bultzatzea, betiere ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren helburuen aurkakoak ez badira.
- Ikasleen artean elkarbizitzarako jarrera eta gaitasunak garatzea.

- Beste herriekiko zabalik egotea eta sentimendu horren arabera jardutera bultzatzea komunitateko kideak.
- Beste herriekiko elkartasunezko eta adiskidantzazko harremanak sortzea.

→ 3.3.9. Aurrerakoia:

- Etengabe aldatuz doan gizartera kritikoki egokitzeko gaitasuna lantzea.

- Hoberako diren aldakuntza eta berrikuntzak zein diren bereizteko gaitasunez hornitzea hezkuntza-komunitateko kideak, ikasleak bereziki.

Trabajar la capacidad de adaptarse de una manera crítica a esta sociedad en continuo cambio.

- Aldakuntza horien aldeko jarrera sustatzea ikasleengan.

- Aldakuntza eta berrikuntza horietarako behar duten prestakuntza teorikoa eta praktikoa ematea ikasleei.

Capacitar al alumnado con una preparación teórica y práctica adecuada requerida para adaptarse a los continuos cambios y reformas.

- Ikastolaren curriculum-proiektua gizartearen ezau-garri eta beharretara etengabe egokituz joatea.

→ 3.3.10. Hausnarketaren aldekoa:

- Gogoeta-jarrera eta -jokabideak izatera bultzatzea Hezkuntza Komunitateko kideak, bereziki ikasleak.
- Hausnarketarako joera hori zientziaren bidetik jorratzea.

→ 3.3.11. Kritikoa:

- Kide guztiak beren irizpideak lantzerantz bultzatzea.
- Ez norberaren ez besteen irizpideek egia absoluturik ez dutela jabetzen irakastea.

Enseñar a evaluar y a analizar críticamente las conductas, actitudes y trabajos de uno mismo y de los demás.

- Norberaren eta besteen jarrera, jokabide eta lanak kritikoki aztertzen eta ebaluatzen irakastea.
- Inguruko jarrera, jokabide eta gertakizunekiko eta horiei buruz komunikabideek ematen duten informazioarekiko jarrera kritikoa garatzea.

→ 3.3.12. Aktiboa:

- Bizitzan, bereziki ikastolako eginkizunetan, jarrera aktiboa izatera bultzatzea hezkuntza-komunitateko kideak.

Impulsar a los miembros de la comunidad educativa a disponer de una actitud activa frente a la vida, y especialmente, en lo que se refiere a las actividades de la Ikastola.

- Ikastolan garatzen den hezkuntza-prozesuaren subjektu aktibo izan behar dute hezkuntza-komunitateko kide guztiak.

→ 3.3.13. Kudeaketa gardena:

- Hezkuntza-proiektuko helburuak lortzeko beharrezkoak diren norberaren baliabideak aukeratu, esleitu eta tratatzeko irizpide egokiak finkatzea eta horien arabera jokatzeko.



- Baliabide materialen kudeaketa gardena egiteko bideak jartzea, eta gardentasun hori ahalbidetuko duten txostenak eta gainerakoak (*paperezkoak nahiz magnetikoak edo bestelakoak*) hezkuntza-komunitateko kideen eskuerara edukitzea.

Establecer medios para realizar una gestión transparente de los recursos materiales y disponer al alcance de todos los miembros de la comunidad educativa memorias y documentos (en papel, magnéticos o de otro tipo) que reflejen esa transparencia.

→ **3.3.14. Eraginkorra:**

- Gobernu-organoen antolamendu malgua eta eraginkorra lortzea, sor daitezkeen arazoei bizkor eta eraginkortasunez erantzun ahal izateko.
- Funtzionamendu-organoen antolamendu malgua eta eraginkorra lortzea, eguneroko funtzionamendu-gaiei eta -ustekabekoei erantzun zuzena eta bizkorra emateko.

Conseguir una organización flexible y eficaz de los órganos de gobierno para hacerles frente rápida y eficientemente a los problemas que pudieran surgir.

→ **3.3.15. Bateratzailea:**

- Pedagogia- eta administrazio-arloaren, gobernu-organoen eta zerbitzuen artean egon daitezkeen aldeak, desadostasunak eta koordinaziorik ezak gaindituz, eremu horietan dihardutenen lana kohe-sionatzea, proiektuaren helburuak gauzatze aldera.
- Ikastolako eta familietako hezkuntza-lana bate-ratzeko bideak jartzea.
- Ikastolaren eta udal, foru-aldundi eta Eusko Jaur-laritzaren hezkuntza-lanaren arteko koordinazioa lortzeko bideak jartzea.

Superar las diferencias, los desacuerdos y las descoordinaciones que pudiera haber entre los ámbitos de pedagogía o administración, órganos de gobierno y servicios, y cohesionar el trabajo de las personas que actúan en esos campos, con objeto de cumplir las metas establecidas en el proyecto.

→ **3.3.16. Adeitsua:**

- Komunitateko kide guztiei jakinaraztea ikastolaren zerbitzuen berri.
- Ikastolan sor daitezkeen premiak atzematen eta premia horiek asetzeko behar diren zerbitzu-eskaerak bideratu eta antolatzen ikasi behar dute komunitateko kideek.
- Ikastolako zerbitzuen antolamendu egokiagoa bultzatu behar dute komunitateko kideek, zerbitzu horien funtzionamenduan egon daitezkeen hutsuneak zuzendu eta zerbitzu horien erabilera zuzena eta neurrizkoa egin.

Los miembros de la comunidad deben impulsar una mejor organización de los servicios de la Ikastola, corregir los errores que puede haber en su funcionamiento y hacer un uso correcto y moderado.

→ **3.3.17. Hobekuntzaren aldekoa:**


- Zer baliabide pertsonal eta material dauden jakin behar dute komunitateko kideek, bakoitzak bere ardurari dagokion mailan, gutxienez.
- Funtzionamendu- eta gobernu-organoetako kideek erabaki behar dute (*eztabaidatu eta ados ipini ondoren*) baliabide horiek zertarako erabili, premien eta beharren azterketa eginik, proiektuaren irizpideak oinarri harturik betiere.

→ **3.3.18. Optimizazioaren aldekoa:**

- Dituen eta izango dituen giza baliabide eta baliabide materialen erabilera ahalik eta egokiena eta probetxuzkoena egiten saiatuko da Herri Ikastola, bai gobernu- bai funtzionamendu-organoetatik.

→ **3.3.19. Irekia:**

- Udalarekin eta herriko erakundeekin lankidetzaz harremanak sustatzen ahaleginduko da Ikastola, eta, behar denean, eskura dituen azpiegiturak eskainiko ditu.
- Herriko ekimenei irekia egongo da Orioko Herri Ikastola, betiere ikastolaren Hezkuntza Proiektuko helburuen kontrakoak ez badira.



La Ikastola tratará de impulsar políticas de colaboración con el Ayuntamiento y con las diferentes instituciones del municipio, y cuando sea necesario, pondrá a disposición de los ciudadanos y ciudadanas las infraestructuras que posee.

Orioko Herri Ikastola estará abierta a todas las iniciativas que se llevan a cabo en el municipio, siempre que no sean contrarias a los objetivos establecidos en el Proyecto Educativo.

→ **3.3.20. Elkarrizketa eta komunikazioaren aldekoa:**

- Ikastolaren helburu eta proiektuak aurrera eramateko, elkarrizketa erabiliko da tresna nagusitzat, eta kide guztien iritzia entzun eta errespetatuko dira. Partaide dituen kolektibo guztietan elkarrizketa sustatzen ahaleginduko da Ikastola, eta horretarako beharrezkoak diren neurriak eta baliabideak jarriko ditu.

Para llevar adelante los objetivos y los proyectos de la Ikastola, la principal herramienta será el diálogo y se escucharán y se respetarán las opiniones de todos los miembros.

→ **3.3.21. Lurraldetasunaren aldekoa:**

- Ikastola honek Euskal Herriko zazpi herrialdeak kontuan izango dituen proiektuak bultzatu eta garatuko ditu, baldin eta proiektu horiek Hezkuntza Proiektuarekin bat badatoz.

Nuestra Ikastola impulsará y desarrollará proyectos que tengan en cuenta los siete territorios de Euskal Herria, si esos proyectos coinciden con el Proyecto Educativo.

Orioko Herri Ikastola
Abeslari 8
943 83 47 04
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

